



AHOLKU-SAREA - ATZERRITARTASUNAREN ALORREAN AHOLKULARITZA JURIDIKOA ESKAINTZEN DUEN EUSKAL SAREA

zirkularra

2011. urtetik Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak sustatu eta diruz laguntzen du Aholku-Sarea izeneko sarea.

Sare honen **helburua da** kalteberetasun-egoeran dauden etorkin eta profesionalei —herri-administrazioetakoei eta hirugarren sektorekoei, etorkinekin inklusio-prozesuetan diharduten heinean— atzerritartasunaren alorreko aholkularitza juridikoa ematea.

Hori guztia, **xedetzat hartuta** atzerritarrei erregularizazioa erraztea, bai eta prebentzio-lana egitea ere gerora irregulartasun-egoerarik gerta ez dadin, betiere familiako bizitzaren alde eginda.

Zerbitzu honek lau agente motaren partaidetza du. Hauek dira agenteak, zehazki. Batetik, **Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza**, Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politika Sailekoa. Honi zerbitzuaren koordinazioa eta funtzionamendua dinamizatzea dagokio. Bestalde, **Biltzen - Integrazioko eta Kultura arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua**- eta **zazpi gizarte-erakunde** (Cear-Euskadi, Gurutze Gorria-Euskadi, Bilboko Elizbarrutiko Caritas, Kosmopolis, SOS-Arrazakeria Gipuzkoa, LAIZ-CCOO eta Adiskidetuak). Azkenik, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako **abokatuen hiru elkargoak**.

Zirkular honen bitartez ahalik eta gehiena zabaldu nahi dugu Aholku-Sarea, herritarren zerbitzura jarritz, gizarte-kohesioa lortu nahian.

Beraz, pertsona etorkinen egoera juridiko-dokumentalaren inguruan edozein informazio eskatzeko, honako kontaktu hauek helarazten dizkizuegu:



AHOLKULARITZA JURIDIKOA, TELEFONOZ ETA POSTA ELEKTRONIKOZ

BILTZEN

Erabiltzailea: tel.: 900 840 890
asesoria@euskadi.eus

Profesionala: tel.: 94 400 18 09
juridika@biltzen.org

Arreta-orduak (Biltzen): 09:30etik-14:00etara